
NOTA DE PRENSA

El director que lanzó al mercado los discos de Barrikada, Kortatu o Berri Txarrak llega a BilbaoArte para repasar el rock de los 60

El centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao presenta el documental de Marino Goñi 'Córtate el pelo'

Su figura está detrás de grupos de música vascos como Barricada, La Polla Records, Berri Txarrak, Kortatu o Hertzainak. Marino Goñi, director de varias discográficas, visita BilbaoArte el próximo 24 de abril (19.00 h.) para presentar el documental 'Córtate el pelo'. Se trata de un arduo trabajo de recopilación, investigación y entrevistas con los protagonistas del rock de Navarra en la década de los 60.

El documental proporciona al espectador un viaje en el tiempo de ida y vuelta: por un lado, transportarse a dicha época para conocer de cerca a los grupos que nacieron y triunfaron dentro de la música moderna en Navarra. Por otro, volver a la actualidad con el movimiento musical generado en dicha década.

Goñi no estará sólo, los principales protagonistas de medios de comunicación, salas de fiestas o aficionados acompañarán al director en esta proyección. Se podrá descubrir a una generación que, en medio de una creciente agitación política y sindical, descubre un nuevo estilo de vida y utiliza una estética revolucionaria que suena a rock. En definitiva, 'Córtate el pelo' trata de resaltar la importancia de una generación que marcó las normas del movimiento rockero que años después seguiría sonando en Euskadi.

PRENTSA OHARRA

Barrikada, Kortatu eta Berri Txarrak taldeen diskoak merkaturatu zituen zuzendaria BilbaoArtera etorriko da 60ko hamarkadako rocka aztertzeko

Bilboko Udalaren ekoizpen artistikorako zentroak Marino Goñiren `Córtate el pelo´ dokumentala aurkeztuko du

Barricada, La Polla Records, Berri Txarrak, Kortatu edo Hertzainak taldeen atzean dago. Marino Goñi, zenbait diskografiketako zuzendaria, BilbaoArten izango da apirilaren 24an (19:00) `Córtate el pelo´ dokumentala aurkezteko. Lan mardul honetan, 60ko hamarkadako Nafarroako rockaren inguruko bilketa, ikerketa eta protagonistekin egindako elkarrizketak jaso dira.

Dokumentalak joan-etorriko bidaia eskaintzen dio ikusleari: alde batetik, garai hartara eramango du Nafarroako musika modernoan jaio eta arrakasta izan zuten taldeak bertatik bertara ezagutzeko. Bestetik, hamarkada hartan sortutako mugimendu musikalarekin orain aldira itzuliko da.

Goñi ez da bakarrik egongo, komunikabideetako eta dantzalekuetako protagonista nagusiak eta zaleak zuzendariarekin izango dira proiektio honetan. Belaunaldi berri bat aurkituko dugu zeina, asaldura politiko eta sindikalaren erdian, bizitzeko modu berri bat aurkitzen baitu eta rockaren doinua daukan estetika iraultzailea erabiltzen baitu. Azken batean, `Córtate el pelo´ dokumentalak Euskadin urteak igaro ondoren entzuten jarraituko zen rock mugimenduaren arauak ezarri zituen belaunaldi baten garrantzia azpimarratu nahi du.

[Informazio gehiago / Más información](#)



BilbaoArte

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto / Asier Amundarain

639 68 97 09

e-mail:prentsa@bilbaoarte.eus